

ERRIBERRIko ANTZERKI JAIALDIA

2019ko UZTAILAREN 19tik ABUZTUAREN 3ra



www.oliteteatrofestival.com

#ANTZERKIAERRIBERRI2019



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



SARREREN SALMENTA

SALMENTA ONLINE maiatzaren 16tik aurrera www.oliteteatrofestival.com www.baluarte.com

SALMENTA LEIHATILAN

BALUARTE _____ **T. 948 066 060**

- Maiatzaren 16tik uztailaren 4ra, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00, astelehenetik larunbatera.
- Uztailaren 16tik abuztuaren 2ra, 11:00-14:00, astelehenetik larunbatera. Igandeak itxita.

ERRIBERRI _____ **T. 948 741 703**

- Uztailaren 16tik eta jaialdian zehar, Turismo Bulegoan/Ardoaren Museoa.
(Teobaldoen plaza, 4. Erriberri)
Astelehenetik larunbatera, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00
Igande eta jaiegunak, 10:00-14:00
*Erriberrin emankizuna dagoen egunetan, leihatila emankizuna hasi arte zabalik egonen da.

ANTZERKI ESKOLAK ZIKLOA _____ **T. 948 755 969**

Ziklo horretako ikuskizunetarako sarrerak Tafalla Kulturguneako leihatilan eta online baino ez dira saltzen ekainaren 14tik https://es.patronbase.com/_Tafalla/Productions web-orrian, 6 euroan.

PREZIOAK	Online eta leihatila MAIATZAK 16TIK UZTAILAK 2RA	Online eta leihatila UZTAILAK 3TIK AUERRERA	Gaszte Txartela online eta leihatila
LA CAVA	15 €	18 €	10 €
LA CARPA	12 €	15 €	8 €
ERREGE JAUREGIA	10 €		
TESTU POETIKOAK (pase bakoitzeko)	5€		
LORCA NIÑO ikuskizuna	3 €		
ABONAMENDU osoa La Cava (11 emanaldi)	150 €	180 €	100 €
3 lanerako ABONAMENDUA La Cava (edozein egunetan)	40 €	50 €	25 €

MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONAK Erriberriko Antzerki Jaialdian, emanaldi bakoitzerako 6 leku daude gordeta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Sarrera horiek erosi nahi dituzten ikus-entzuleek Baluarteko eta Erriberriko txarteldegietan edo 948 066 060 telefono zenbakiaren bidez egin beharko dute (erosketa bakoitzean, gehienez ere, 2 sarrera erosi ahal izango dira). Hartara, Antzerki Jaialdiak ezin die bermatu beren beharretarako kokaleku egokia izatea, gordetako leku horietarako ez den sarrera erosten duten mugikortasun murriztuko pertsonen. Edonola ere, antolatzaileak saiaturako dira ikus-entzule horiek kokatzen esparruak eskaintzen dituen aukeren barnean.

Ikuskizunaren datuak, eguna eta ordutegia web gunean baieztatu. Baliteke bertako informazioa eguneratuago egotea.

INFORMAZIO GEHIAGO www.oliteteatrofestival.com

BADATOR ANTZERKIAREN NAFARROKO FESTA HANDIA: ERIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIA

Erriberriko Jaialdia antzerkiaren Nafarroako festa nagusia izaten da urtero, eta 2019an festa hau oso berezia izanen da, jaialdiaren **XX. edizioa** delako.

Urteurren borobila dugu, berrikuntzez beteta datorrena. Hasteko hor dago kartela, diseinu berritzailea duena. Hartan **Gata Cattana** rap-kantaria ageri zaigu, berriki hil dena eta jaialdiak omendu nahi duena.

Gatak edizio honen izaera hibridoa iragartzen digu. Jaialdia abiatuko da **Shakespeare** eta **Molière** bezalako klasikoekin ikuspegi garaikidetik, eta egile garaikideak hartuko ditu, hala nola **Federico García Lorca**, **Alfredo Sanzol** edo **Patxo Telleria**.

Bi hamarkada igaro ondoren, Erriberriko Antzerki Jaialdiak nortasun berezia lortu du eta erreferentziako gune bilakatu da. Hartan ikusleak dira egiazko protagonistak eta haien gainean dabilta biraka egileak, obrak eta proposamen eszenikoak, hausnarketa kritikoa eta kontzientzia sorrarazteko. Aurtengo programazioak erreferentzia sozial, politiko eta kultural horiek berresten ditu emakumearen borroka edo gure jatorrien identitatea jorratzen dituzten proposamenekin. Nazioarteko presentzia protagonista izanen da aurtun Erriberrin, Europako eta Latinoamerikako konpainien ikuskizunekin (**Frantzia**, **Portugal** eta **Mexikokoak**).

2019ko uztailaren 19tik abuztuaren 3ra bitartean, Erriberrik programazio hedatua izanen du, hiru emankizun gehiago

egonen baitira La Cavan, han egiten diren asteburuetak emanaldi arruntez gain; agertoki berriak ere egonen dira, hala nola **La Carpa** edo Errege-erreginen Jauregiko zenbait espazio, non ikuskizun bikainak disfrutatu ahaliko diren formatu txikian.

Aurtun **Jon Maya** da zuzendari gonbidatua, eta haren konpainiak (**Kukai Dantza**) bi ikuskizun eginen ditu: *Erritu* eta *Gelajauziak*.

Jaialdi honek jarraitzen du imoki babesten Nafarroako sektoreko profesionalak. Oraingoan, **Antzerki Poetika** zikloaren beste edizio bat izanen da; egonaldi artistikoa edo ikerketako laborategia ere egonen dira, eta laborategian Nafarroako konpainia profesional batek muntaia berri bat abiaraziko du. Gainera, XX. edizio honetan, Erriberriko Antzerki Jaialdiak Nafarroako bi konpainia jarri ditu agertoki nagusian, La Cavan. Nafarroako Antzerki Eskolak aurtun ere muntaia berri bat aurkeztuko du Tafallan, **Interpretazio Eskolen Topaketaren** barruan.

Horiez gain, Erriberriko 2019ko programazioak tailer bat izanen du, Portugaleko **Companhia do Chapitô** taldearen ardurapekoa, eta solasaldi bat **Alfredo Sanzol** antzerkigile nafarrarekin, zeina Zentro Dramatiko Nazionalaren zuzendari berria baita.

Hemen dugu berriro Erriberriko Antzerki Jaialdia. Badator Nafarroako antzerkiaren festa!

GREZIAKO TRAGEDIETATIK GAUR EGUNGO TRAGEDIETARA.

ANTIGONATIK NINA SIMONERA TEBASTIK NEW YORKERA ETA PARISERA

“Gizartearen taupada, taupada historikoa, jendearen drama, bere paisaien eta espirituaren benetako kolorea, irri eta negarrekin, biltzen ez dituen antzerkiak ez du eskubiderik antzerki deitzeko”

Federico García Lorca.

Azken hiru urtetik hona, XX. edizio honen helburua da norabide berria sendotzea egile klasikoei egile garaikideak eta nazioarteko proposamenak gehituz eta, orobat, Erriberriko Jaialdiari Espainiako jaialdietan nortasun aberatsagoa emanez.

Aurreko edizioan, 98ko Belaunaldira hurbildu ginen, Valle Inclánekin. Aurtengoan, **Lorca**ren bidez, 27ko Belaunaldiko antzerki-poetikara egin dugu jauzi.

Ez dut sekula antzerkia jolaserako egintza moduan hartu. García Lorca hona ekarriz, niretzat tresna espirituala eta hezkuntza-tresna da, gure nortasuna handitzen eta indartzen laguntzen diguna.

Aurtengo programazioan berresten dira gure xede diren erreferentzia sozial, politiko eta kulturalak.

Emakumearen borroka presente da **Antígona** eta **Nina Simonen**. Biek ala biek emakumearen arimara hurbiltzen gaituzte, eta atzerakada eta ziurgabetasuneko garai hauen gizarte-taupada jasotzen dute.

Jatorriz nekazari izatearen nortasuna bildu da *¡Vengo!*n. **Sara Canoren** mundu mailako estreinaldian, bai eta Jon Mayak zuzentzen duen Kukai Dantzak emaniko bi sormen-lan hauekin: *Erritu* eta *Gelajauziak*-Dantzaren Sari Nazionala. **Jon Maya** da zuzendari gonbidatua.

Shakespeare, Molière, Lorca eta **Calígula** maitasunaz, heriotzaz, antzerkiak eta biziaz ari zaizkigu, tragediaren edo komediaren bidez.

Antzerki garaikidea honako hauek ekarriko dute: *La Valentía*, **Alfredo Sanzolena**, *El último tren a Treblinka*, **Patxo Telleriarena**, *Lorca, la correspondencia personal*, **Juan Carlos Rubioren** eta *La noche antes de los bosques*, Frantziako antzerki garaikidearen egilerik adierazgarriena den **Bernard-Marie Koltès**ena.

Portugal da herrialde gonbidatua. **Chapitôk**, *Electra*ren bertsio berezia aurkeztuko du eta, horretaz gainera, tailer bat emanen du eta Lisboako Antzerki eta Zinemako Goi Eskola.

Nazioarteko programazioa Frantziarekin eta **Comédie de Caen**-en ekoizpenarekin osatzen da: *Retrato de Ludmilla en Nina Simone*, Afrikako mina, indar artistikoa eta diaspora gogora ekartzeko, eta Mexiko, Cervantesen *Merolico*; *entremeses bululuados* antzezten duen **EFE Tres Teatro** konpainiarekin.

Bi talde nafar La Cavan: **Producciones Maestras** eta **R. M. Management**, Antzerki

Poetika Jauregian, Egoitza Erriberrin, Arte Dramatikoko eskolak Tafallan eta antzerki-proposamen berriak ohikoak ez diren espazioetan. Horiekin guztiekin batera egingen dugu XX. edizio hau.

Programazioari amaiera ematen diote **Pep Tosarrek** eta haren *Federico García*. **“Bere antzerkiari laguntzen ez dion edo bultzatzen ez duen herria hilda ez badago ere hilzorian dago”**.

Antzerki-bidaia hau partekatuzera gonbidatzen zaitugu.

Luis F. Jiménez
Zuzendari Artistikoa



UZTAILAK 19 OR

19:30 / JAUREGIA  

TRES MUJERES DE LORCA

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Ángel Sagüés Irigoyen**
ÁTIKUS TEATRO

20:30 / ANDRE MARIAREN ATARIA   

PASO(S) DE LA POLITICA ESPAÑOLA

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Miguel Goikoetxandía**
ILUNA PRODUCCIONES

22:00 / LA CAVA 

ANTÍGONA

Sófocles, Bertolt Brecht, Jean Anouilh
LA FERROVIARIA
Zuzendaritza: **Paco Macià**

UZTAILAK 20 LR

20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA  

LORCA NIÑO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Miguel Munarriz**, Federico García Lorcaren lanean oinarrituta
LA NAVE TEATRO

21:00 / JAUREGIAREN TERRAZA 

ERRITU

Kukai Dantza & Sharon Fridman
KUKAI DANTZA+ERIBERRIKO ABESBATZA

22:30 / LA CAVA

REY LEAR

William Shakespeare
ATALAYA
Dramaturgia eta zuzendaritza: **Ricardo Iniesta**

UZTAILAK 21 IG

19:30 / JAUREGIA  

TRES MUJERES DE LORCA

20:15 / JAUREGIA  

DESCUBRIENDO A HAMLET

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Adriana Salvo** eta **Daniel Granda**, William Shakespeareren *Hamlet* abiapuntuzat hartuta
BOGA-BOGA

20:30 / ANDRE MARIAREN ATARIA   

PASO(S) DE LA POLITICA ESPAÑOLA

21:00 / JAUREGIA  

LUCRECIA ARTEMISIA VIRGINIE. TRES RELATOS DE UNA VIOLACION

Shakespeareren *Lukreziairen bortxaketa* Virginie Despentesen *King Kong Teoria* eta, Artemisia Gentileschi bortxatzeagatik, Agostino Tassi margolariaren epaiketaren testu legalak
Dramaturgia eta zuzendaritza: **Pedro Zabalza**

IRALEI TEATRO

22:00 / LA CAVA  

VENGO

Koreografia eta Zuzendaritza: **Sara Cano**
SARA CANO COMPAÑÍA DE DANZA

UZTAILAK 23 AR

20:00 / TAFALLA KULTURGUNEA  

GRACIAS A LA VIDA

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Rubén Hernández**
NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLA

22:00 / LA CARPA 

LA NOCHE JUSTO ANTES DE LOS BOSQUES

Bernard-Marie Koltès
Zuzendaritza: **Fernando Renjifo**

UZTAILAK 24 AZ

20:00 / TAFALLA KULTURGUNEA 

LAS BODAS DE OLMEDO

Javier Hernando, oinarri gisa hartuta Lope de Vegaren *El caballero de Olmedo* eta Federico García Lorcaren *Bodas de sangre*
ESCUELA SUPERIOR ARTE DRAMÁTICO DE CASTILLA Y LEON-ESADCYL
Zuzendaritza: **Pepa Pedroche**

22:00 / LA CAVA  

LOGO DESATINO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Ana Maestrojuán**
PRODUCCIONES MAESTRAS

UZTAILAK 25 OG

20:00 / TAFALLA KULTURGUNEA  

MUCHO RUIDO Y POCAS NUECES

William Shakespeare
ESCUELA SUPERIOR DE TEATRO E CINEMA DE LISBOA
Zuzendaritza: **Tonán Quito**
Ikuskizuna portugesez, gaztelerezko azpitituluekin.

22:00 / LA CAVA 

MARGARITAS DE MARGARITA. MUJER Y RENACIMIENTO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Jesús Arbués**
R.M. MANAGEMENT
Gaztelaniazko eta euskarazko antzezlanak.

UZTAILAK 26 OR

19:30 eta 21:00 / JAUREGIA

AMOR OSCURO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Jesús Arbués**, Federico García Lorcaren *Sonetos del amor oscuro* obraren gainean
VIRIDIANA

22:30 / LA CAVA 

ELECTRA

Talde-sormena

COMPANHIA DO CHAPITÔ / PORTUGAL

Zuzendaritza: Cláudia Nóvoa eta José

Carlos Garcia

UZTAILAK 27 LR

UZTAILAK 27, 28 eta 29 

17:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

TAILERRA

COMPANHIA DO CHAPITÔ

20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA



LORCA NIÑO

20:00 / JAUREGIA 

CALÍGULA DEBE MORIR

Dramaturgia eta zuzendaritza: Mabel del

Pozo y Xael Fernández

BAGOA PRODUCCIONES

22:30 / LA CAVA

LORCA, LA CORRESPONDENCIA PERSONAL

Federico García Lorca

HISTRIÓN TEATRO

Dramaturgia eta zuzendaritza: Juan Carlos

Rubio

UZTAILAK 28 IG

12:00 / ERIBERRIKO PARADOREA

SORTZAILEEKIN SOLASEAN

Alfredo Sanzol eta Rosana Torresekin.

19:30 / JAUREGIA  

TRES MUJERES DE LORCA

20:15 / JAUREGIA  

DESCUBRIENDO A HAMLET

20:30 / ANDRE MARIAREN ATARIA



PASO(S) DE LA POLÍTICA ESPAÑOLA

21:00 / JAUREGIA  

LUCRECIA ARTEMISIA VIRGINIE

22:00 / LA CAVA 

LA VALENTÍA

Dramaturgia eta zuzendaritza: Alfredo

Sanzol

LAZONA

UZTAILAK 31 AZ

22:00 / LA CAVA

EL ENFERMO IMAGINARIO

Jean Baptiste Poquelin, Molière

MORBORIA TEATRO

Bertsioa eta zuzendaritza: Eva del Palacio

ABUZTUAK 1 OG

22:00 / LA CARPA

ÚLTIMO TREN A TREBLINKA

Patxo Telleria

VAIVÉN PRODUCCIONES

Zuzendaritza: Mireia Gabilondo

ABUZTUAK 2 OR

19:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

LA TRADICIÓN DEL TEATRO ITINERANTE EN LAS DOS ORILLAS

David Rodríguez Solás

MASSACHUSETTSEKO UNIBERTSITATEA

HITZALDIA

20:30 / ANDRE MARIAREN ATARIA



MEROLICO-ENTREMESES BULULUADOS

Dramaturgia eta zuzendaritza: Fernando

Villa, Miguel de Cervantesen entremes

batzuetatik abiatuta

EFE TRES TEATRO / MÉXICO

22:30 / LA CAVA 

RETRATO DE LUDMILLA EN NINA SIMONE

Dramaturgia eta zuzendaritza: David Lescot

LA COMEDIE DE CAEN- KAIROS / FRANTZIA

Ikuskizuna frantsesez, gaztelarazko

azpiztitulekin.

ABUZTUAK 3 LR

19:30 / JAUREGIA  

LUCRECIA ARTEMISIA VIRGINIE

20:00 / JAUREGIA  

DESCUBRIENDO A HAMLET

20:30 

EGOITZAREN AURKEZPENEA

22:00 / LA CAVA

FEDERICO GARCÍA

Dramaturgia eta zuzendaritza: Pep Tosar,

Federico García Lorcaren obran eta

bizitzan oinarriturik

00:00 / KARLOS III.AREN PLAZA  

GELAJAUZIAK

Zuzendaritza: Jon Maya

KUKAI DANTZA

 ANTZERKI POETIKA ZIKLOA

 DOAKO EMANKIZUNA

 + 16 URTE

 ZUZENDARI GONBIDATUA

 ESTREINALDIA


 ANTZERKIA FAMILIARTEAN

 HEVENGO ANTZERKIA

 ANTZERKI ESKOLAK

 NAZIOARTEKOA

 ANTZERKI IRISGARRIA





LA CAVA

ANTÍGONA

Sófocles, Bertolt Brecht, Jean Anouilh

LA FERROVIARIA

Zuzendaritza: **Paco Macià**



OSTIRALA **UZTAILAK 19** / LA CAVA / 22:00


Antigonak irudikatzen du gainerakook aurre emateko gai ez garen oro: norberaren egia-
ren defentsa, kosta ahala kosta, determinazio horrek hilko bagaitu ere.

Zerk erakartzen gaitu hainbeste Antigona? Haren unibertsaltasunak, emakumearen
rola nagusi izateak, eta gizakiaren eskubide naturalaren eta Estatuko legeen arteko
gatazka betierekoak. Bestalde, heriotzaren misterioarekin desafio egiten digu eta, orobat,
harengana hurbiltzen, modu natural eta ia fatidiko batean.

Bertsio berri hau atemporal eta sinbolikoa da, tragedia greziarren pultsio bitalei fidela
zaie, eta antzerki-fusioaren eta *performancearen* maisu handietatik, Jean Fabrerengandik,
edaten du, besteak beste.

Antigona, diskurtsoa da gorputza. Eszena askoren izaera performatibo eta fisikoak
obraren ikuspegi klasikoaren transgresiorako atea irekitzen du. Hala ere, haren mezuaren
esentziari zor zaion errespetuaren aldeko apustua ere bada eta, orobat, gure herrialdean
berean giza eskubideen defentsarako konpromiso etikoaren aldeko apustua.

Hala, mitoaren balioak berradiskidetzen dira historian zehar beti errepikatzen den
errealitatearekin, hots, gerraren krudeltasunarekin eta galtzaileendako justizia ezarekin.

 + 16 URTE

PARTE-HARTZAILEAK

Eloísa Azorín, Enric Juezas, Morgan Blasco, María Muñoz, Marino Muñoz, Claudia Garón eta Clara
Crespo.

TALDE ARTISTIKOA

Egokitzapena eta zuzendaritza: Paco Macià / **Soinu-espazioa:** Niño de Elche / **Eszenografia eta irudia:**
Ángel Haro / **Argiztapena:** Pedro Yagüe / **Jantziak:** Pedro Lobo eta Isabel del Moral / **Argazkia eta
bideoa:** Joaquín Clares / **Zuzendaritza teknikoa:** Visisonor / **Kudeaketa:** Diego Juan / **Dokumentazioa:**
Miguel Ángel Jiménez Aguilar / **Produktzio exekutiboa:** Eloísa Azorín / Institut Valencià de Cultura,
Teatros Romea/TCM, Festival de Teatro de San Javier eta Elx Cultura erakundeek elkarlanean
ekoiztutako ikuskizuna.

Antígona Compañía Ferroviaria-ren ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.ferroviaria.net

Iraupena: 90'

REY LEAR

William Shakespeare

Dramaturgia eta zuzendaritza:

Ricardo Iniesta

ATALAYA



LARUNBATA UZTAILAK 20 / LA CAVA / 22:30

Emily Dickinsonek esaten zuen: "Shakespeare da gure etorkizuna". Hala bada, minezko, doilorkeriazko eta suntsipenezko agertoki ikaragarri baten aurrean geundeke, obra unibertsal horren neurtitz hauek durundi egiten duten honetan: "zorigaitza da gero gure garai hauetan eroketako gure gidatzea".

Carmen Gallardoren emanaldia bikaina da, basatasunez eta sentsibilitatez bete. Nuria Esperten eta Glenda Jacksonen erreleboa hartzen du Britainiako errege zaharra interpretatzerakoan. Jakina da errege zahar hark erreinua alaben artean banatu zuela eta harekin neurrigabeko anbizioa eta kaosa eragin zituela.

Ñabarduraz betetako pertsonaia, despotismotik eta erotasunetik duintasunera eta samurtasunera igarotzen dena, antzerkiaren historian sekula ikusi ez dugun muturreko ibilbide batean. Familia gatazketatik harago, bidaia honetan gizatasun biluzia bilatzen da eta norbanakoa azalekoa den oroz erantzen da.

Hamlet zalantza bada, Otelu zela eta Elektra mendekua bada, hemen pertsonaia nagusiakitsu daude, kasuren batean benetan itsu, gainera. Learrek dio oso itsua izan dela eta boteretsuak ere hala direla, hala nahi dutelako haien antzeko pertsonetako asko pairatzen duten errealitate ikaragarriaren aurrean.

PARTE-HARTZAILEAK

Carmen Gallardo, Joaquín Galán, María Sanz, Raúl Vera, Elena Aliaga, Sílvia Garzón, Lidia Mauduit, José Ángel Moreno eta Javi Domínguez.

TALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza eta dramaturgia: Ricardo Iniesta / **Musikaren konposizio eta zuzendaritza:** Luis Navarro / **Abesbatzaren zuzendaritza:** Lidia Mauduit eta Marga Reyes / **Abesbatzaren tailerra:** Laboratorium Piesni / **Espazio eszenikoa:** Ricardo Iniesta / **Eszenografia:** Ricardo Iniesta / **Testuriazio eszenografikoa:** Ana Artega / **Jantziak:** Carmen de Giles / Flores de Giles / **Makillajea eta ile-apainketa:** Manolo Cortés / **Eraikuntza eszenikoa:** Sergio Bellido / **Koreografia:** Juana Casado / **Zuzendariaren laguntzailea:** Sario Téllez / **Zuzendariaren asistentea:** Rocío Costa / **Argitazpenaren diseinua eta koordinazio teknikoa:** Alejandro Conesa / **Soinu-espazioa:** Emilio Morales / **Administrazioa:** Rocío de los Reyes / **Banaketa:** Victoria Villalta / **ekoizpena:** M^a Paz López Millón / **Komunikazioa:** Blanca Sanz / **Idazkaritza:** Macarena Gutiérrez.

Rey Lear Atalaya-ren ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.atalaya-tnt.com

Iraupena: 100'

VENGO

Koreografía eta zuzendaritza: **Sara Cano**

SARA CANO COMPAÑÍA DE DANZA



IGANDEA UZTAILAK 21 / LA CAVA / 22:00

Vengo de moler, morena...

Gaztelaniaren ahozko tradizioaren klasiko bat da *La Molinera* lana. Haren letra ezaguna erreferentzia moduan hartuz folkloeari gaur egungo ikusmoldeak abiatuta egiten zaio ekarpena, halako moduan non orainaldiak eta tradizioak bat egiten duten gure nortasun-seinaleak eta gure erroak berriro irakurtzeko.

Sara Cano dantzari eta koreografo ezagunak ibilbide eklektikoa du. Izan ere, dantza espainiarra, flamenkoa, dantza garaikidea edo folklorea egin ditu. Hartara, proposatzen duen ikuskizunean, pertsonak dantza egiteaz gainera, elkarrekin bat egiten dute, sentitu egiten dute. Elkarrizketarako espazio anitz batean aritzen dira, non, gure folkloreaken sustraiak abiapuntutzat hartuta, dantzak formak eta etiketak gaituzten dituen.

Hala, Salamancako dantzarekin eta Andaluziako folkloreakekin batera modu naturalean ageri dira muñerak edo Aragoiko jota, tradizio musikalaren berritzaile diren Eliseo Parra, Kalakan edo Coetus erritmoan.

Vengorekin, Canok azpimarratu nahi du folklorea arte bizi eta aldakorra dela, eboluzionatzen duena eta orainaldiarekin konektatzen gaituena, nondik gatozen eta nora goazen lotzeko baliagarria.



ESTREINALDIA



ANTZERKIA FAMILIARTEAN

PARTE-HARTZAILEAK

José Alarcón, Yolanda Barrero, Juan Berlanga, José Capel, Cristina Cazorla, Daniel Morillo, Verónica Garzón, Begoña Quiñones, Ana Del Rey eta Soujung Young.

TALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza eta koreografia zuzendaritza: Sara Cano / **Interpretatzaileak:** José Alarcón, Yolanda Barrero, Juan Berlanga, José Capel, Cristina Cazorla, Daniel Morillo, Verónica Garzón, Begoña Quiñones, Ana Del Rey eta Soujung Young / **Folklore-aholkulariak:** Javier García, Noemí Orgaz eta Guadalupe Mera / **Mugimendu-aholkulariak:** Verónica Garzón eta Begoña Quiñones / **Perkusio-maisuak:** Eliseo Parra eta Luis García Varela / **Musika:** Eliseo Parra, Coetus, L. eillía, Kalakan eta Vigüela / **Jatorrizko musika:** "En la raíz de los sueños" / **Hitzak:** Alberto Funes / **Musika eta ahotsa:** Eliseo Parra / **Argien eta agertokiaren diseinua:** Gloria Montesinos / **Soinu-diseinua:** Jorge Díaz / **Jantzien diseinua:** Elisa Sanz / **Jantzien giropena:** María Calderón / **Tresneria:** Oscar Alonso eta Carlos Arrabal / **Ekoizpena:** Sara Cano Compañía de Danza / **Ekoipen-laguntzailea:** David Arrabal / **Banaketa:** Elena Santonja Esmanagement

Vengo Sara Canoren Dantza Konpainiaren eta Madrilgo Erkidegoaren ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.esmanagement.es

Iraupena: 75'

LOCO DESATINO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Ana Maestrojuán**

PRODUCCIONES MAESTRAS



ASTEAZKENA **UZTAILAK 24** / LA CAVA / 22:00


Gaua da. Ana Caro Mallén, XVII. mendean bizi izan zen poeta eta dramagile barroko andaluziarra, logelan dago *Valor, agravio y mujer* komedia idazten.

Bi egun daramatza idazten eta hirugarren bat idazteko ere prest dago. Komedia horretan Don Juan de Córdoba bere abileziak baliatuz iruzur egiten dion emakume gaztearen komedia taxutu nahi du. Ana idazten ari da edo, hobeto esanda, saiatsen ari da. Ez du jarraitzeko modurik bilatzen, haserretu egiten da, ez aurrera ez atzera gelditzen da eta, orobat, etsipenak gaina hartzen dio, harik eta Don Juan agertzen den arte.

Komedia barregarria, zeinetan goizeko argiek berreskuratuko baitute gauean galdua zen ordena.

Hala, Producciones Maestras-ek Urrezko Mendeko egile ezagun hau bere endredoeko komedien eta auto sakramentalengatik ezaguna egin zen eta, zernahi ikerketaren arabera, bere garaian lana ordaintzen zioten dramagile bakarra zen.

 HEMENGO ANTZERKIA

 + 16 URTE

PARTE-HARTZAILEAK

Ana Goya eta Ángel García Moneo

TALDE ARTISTIKOIA

Dramaturgia eta zuzendaritza: Ana Maestrojuán Guindano / **Argiztapenaren diseinua:** Koldo Tainta / **Eszenografiaren diseinua:** Koldo Tainta eta Producciones Maestras / **Figurinis-moa:** Edurne Ibáñez / **Soinu-espazioa:** Gorka Pastor / **Sopranoa eta musika barrokoa:** Raquel Andueza eta Jesús Baena / **Karakterizazioa:** Marlene Aznar / **Diseinu grafikoa:** Oier Zúñiga eta Marta Elena Martín / **Eszenografiaren eraikuntza:** Raúl Arraiza / **Euskarrien grabazioa:** Acrónica Producciones SL.

Loco Desatino Producciones Maestras-en ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.produccionesmaestras.com

Iraupena: 70'

MARGARITAS DE MARGARITA MUJER Y RENACIMIENTO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Jesús Arbués**

R. M. MANAGEMENT

Gaztelaniazko eta euskarazko antzezlan



OSTEGUNA UZTAILAK 25 / LA CAVA / 22:00

XXI. mendeko emakume bat Margarita Angulemakoaren edo Margarita Nafarroakoaren koadro bati begira dago; “Errenazimentuko Médicistzat hartzen da Frantzian” Margarita.

Haren begiei so dago, haren keinuak sumatu nahian dabil, ezkutuan dauden desioak, beldurrak eta bakardadea iragarri nahirik. Azken finean, historiaren hitz handiak (mistika eta boterea, eta literatura eta politika aurkitzea), beharbada inoiz existitu gabeko egunkari pertsonal bateko galdutako orriak irudikatuz. Egia ere asma daiteke.

Diziplina anitzeko ikuskizuna da, musika zuzenean duena, gaztelania eta euskara tartekatzen dituena, mezenas handi, tolerante, bikain eta kultu baten inguruan gauzatua, non garaia eta pertsonaia, aldatetaren alde pasioz eta adimenez borrokan ari den emakume baten denboraren metafora gisa baliatzen diren.



HEMENGO ANTZERKIA

TALDEA

Aktorea: Adriana Salvo / **Ahotsa eta zango-biola:** Julieta Viñas / **Organo garraigarria eta espineta:** Arantza Lorenzo de Reizabal / **Zango-biola:** Ayla Losada / **Perkusioak:** Ana Iso.

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta eszenako zuzendaritza: Jesús Arbués Biec / **Talde teknikoa:** RAMPA SL. / **Sormena eta ekoizpena:** Raúl Madinabeitia.

Margaritas de Margarita R. M. Management-en ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.margaritasdemargarita.com

Iraupena: 70'

ELECTRA

Talde-sormena

COMPANHIA DO CHAPITÔ
PORTUGAL

Zuzendaritza: **Cláudia Nóvoa eta José Carlos García**



OSTIRALA **UZTAILAK 26** / LA CAVA / 22:30

Agamenonen eta Clitemnestraren alaba mendeku-gose da, Clitemnestraren maitaleak erail baitzuen Agamenon. Horrek guztiak gonbita egiten digu odolez eta erotasunez beteriko tragedia greziar handien eta konplexuenetako bat ikustera.

Hala ere, konpainiak parodia sofistikatu batekin ematen digu ezustekoa, eguneratze, koherentzia estilistiko, lan fisiko eta konkretzio eszenikoa dituen ariketa egiten baitu. Lau antzezlez eta azkenburuetarako goilara batzuek osatutako eszenografia soila, besterik ez. Hori aski da Sofoklesen mitoa umorez gurera ekartzeko, tragediaren tragikotasuna ezertan ere galdu gabe.

Portugalgo konpainia ez da hasi berria. Hogei urte baino gehiago daramatza jaialdiko agertokietan antzeztzen, estilo berezko eta nahastezin batez, gainera.

Chapitôk beti egiten du komediaren aldeko apustua eta gai da errealtate sozialaren alderdi guztiak ezbaian jartzeko. Haren diziplina anitzeko ikuskizunaren oinarri dira lan fisikoa eta etengabe garatzen ari den talde-lana, ikusleen irudimenari irekia, hizkuntza-barrerak hausten dituen eta ikuslearekin harreman estua bilatzen duena.



PARTE-HARTZAILEAK

Jorge Cruz, Susana Nunes eta Tiago Viegas.

TALDE ARTISTIKOA

Zuzendariak: Cláudia Nóvoa eta José Carlos García / **Zuzendarien laguntzaileak:** Ariana Silva eta Daniela Andana / **Zuzendaritza teknikoa:** Paulo Cunha / **Gaztelaniazko testua:** María Guerrero eta César Arias / **Sonoplastia:** Sílvio Rosado eta Samuel Rodrigues / **Jantziak:** Glória Mendes / **Argiaren diseinua:** Samuel Rodrigues / **Diseinu grafikoa:** Sílvio Rosado / **Prentsa:** Catarina Beja / **Argazkia:** Susana Chicó / **Ikus-entzunezkoak:** Bruno Gascon, Joana Domingues, Nádia Santos eta Simão Anahory / **Ekoizpena:** Tânia Melo Rodrigues / **Banaketa-kontratazioa:** César Arias-MARMORE.

Electra Companhia Do Chapitô -MARMORE-ren ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.marmore.net

Iraupena: 60'

LORCA, LA CORRESPONDENCIA PERSONAL

Federico García Lorca

HISTRIÓN TEATRO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Juan Carlos Rubio**



LARUNBATA UZTAILAK 27 / LA CAVA / 22:30

Juan Carlos Rubio andaluziar dramagile saritua liluratuta dago Lorcarekin, ez soilik idazle moduan, baita pertsona moduan ere. Lilura horren ondorio den lan honetan, Lorcaren korrespondentzia pertsonalean, hitzaldietan eta idazkietan murgiltzen da, bere bizitzako azken orduen erretratu bital, konplexu eta zirrargarria egiteko.

Haren bizitza arin eta sakon pasatzen da gure begien aurrean. Ibilbide horretan daude Nueva Yorken poeta moduan eman zituen egunak, Habanako palma eta kanelazko gau mugituak, beti bere Granadara itzultzea (handik ihes egiten du, baina behin eta berriz hara itzultzen da). Eta, bukatzeko, ziega hotza. Hartatik egiten digu hitz.

Era berean, Lorca bikoiztuta ageri zaigu (gizona eta emakumea da). Beti soinean eraman zuen dualitate hori ezin hobea da konplexurik gabeko puzzle baterako; Federicok berak hainbestetan laztandu zuen antzerkiaren barmeko antzerkiaren bukile horretan, sortu eta ugaltzen den errealtatea adierazten du, azken finean, beti toki berera iristeko.

PARTE-HARTZAILEAK

Gema Matarranz eta Alejandro Vera.

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta zuzendaritza: Juan Carlos Rubio / **Espazio eszenikoaren diseinua:** Estudio deDos (Curt Allen Wilmer eta Leticia Gañán) / **Eszenografiaren eraikuntza eta atrezzo:** Álvaro Gómez Candela / **Zuzendariaren laguntzailea:** Luis Miguel Serrano Martín / **Jatorrizko musika eta soinu-espazioa:** Miguel Linares / **Argitazpenaren diseinua:** Juan Felipe Tomatierra / **Soinu teknikaria:** Ángel Moreno / **Komunikazioa:** Alexis Fernández. En Cursiva Comunicación / **Diseinu grafikoa:** Rafa Simón / **Jantzien konponketak:** Araceli Morales / **Maketazioa:** Rafa Simón / **Bideoa:** Pablo Mabe / **Argazkia:** Gerardo Sanz / **ekoizpena:** Nines Carrascal y Sonia Espinosa / **Banaketa:** Nines Carrascal.

Lorca, la correspondencia personal Histrión Teatro-ren ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.histrionteatro.es

Iraupena: 70' (atsedenik gabe).

LA VALENTÍA

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Alfredo Sanzol**

LAZONA

Ikuskizun Irigarria azpitoluekin,
soinu handitzearekin eta audiodeskribapenarekin



IGANDEA **UZTAILAK 28** / LA CAVA / 22:00

Zer gorde nahi dugu gure iraganaz?

Sanzolek ez du erantzunik, baina badaki “hautatu behar dugula zer berreskuratu nahi dugun eta zer ez, eta horretarako ahalegina eta ausardia behar dela”.

La Valentía ukitu autobiografikoak dituen komedia bixi-bixi eta paranormala da: bi ahizpak oinordetzan hartu dute naturaz inguratutako familiaren etxea; uda asko eman zituzten bertan. Hautzaroko paradisuak, etxeko atletik bost metrora igarotzen den autobidearen zarata burrunbatsuak hautsi du orain. Ahizpetako batek bertan bizitzea erabaki du, oroitzapenei iltzatua. Besteak, ordea, saldu egin nahi du eta ahizpa handik atera, kosta ahala kosta.

Dramagile nafarra *La ternura* eta *La respiración* lanen egilea da eta Literatura Dramatikoko Sari Nazionala erdietsi zuen 2017an. Honako honetan bere bizipen eta beldurrak erakusten ditu. Fantasma eta endredoz beteriko komedia distiratsu honen bidez, metafora bat egin du “herrialdeei eta gizarteei buruzkoa, zeinetan behar ez diren gauzak oinordetzan hartzen diren eta beharrezkoak diren beste batzuk ahaztu”.

 ANTZERKI IRISGARRIA

PARTE-HARTZAILEAK

Jesús Barranco, Francesco Carril, Vanessa Espín, Estefanía de los Santos, Font García eta Natalia Huarte.

TALDE ARTISTIKOIA

Testua eta zuzendaritza: Alfredo Sanzol / **Argitazpenaren diseinua:** Pedro Yagüe / **Eszenografia:** Fernando Sánchez Cabezedo eta Eduardo Moreno / **Jantziak:** Guadalupe Valero / **Zuzendariaren laguntzailea:** Beatriz Jaén / **Komunikazioa:** Pepa Rebollo / **Ekoizpenaren zuzendaria:** Miguel Guerdo / **Banaketa:** Pepa Rebollo.

La Valentía LAZONA-ren ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.lazona.eu

Iraupena: 105'

EL ENFERMO IMAGINARIO

Jean Baptiste Poquelin, Molière

MORBORIA TEATRO

Bertsioa eta zuzendaritza: **Eva del Palacio**



ASTEAZKENA UZTAILAK 31 / LA CAVA / 22:00

Argán, Molièreren azken lanaren protagonista, bere buruaren preso da. Ambizioz beteriko eta eskrupulurik gabeko pertsona inguratutako hipokondriakoa da. Sendaketa eta botiketan aurrezteagatik, gauza da familian sendagile bat izateagatik bere alaba Angélicaren eta sendagilearen semearen arteko ezkontza hitzartzeko.

Frantses dramagilea gizakiaren alde barregarria agerian uzten aditua izan zen, bizitzaren fartsa komedia magistralen bidez erauzten zuen. Hala ere, muinean, tragediatik asko dute halako komediek. Alegiazko gaixo honekin irri egiten badugu ere, bizitzari aurre egiteari beldur ikaragarria dion pertsona bat da.

Errege-festak antolatu behar zituenean Luis XIV.a erregearendako zuzendari maitatuena zenaren uberari jarraikiz, musika, dantza eta antzerkia nahasten aditua zen, Morboriak ikuskizun oso zaindua taularatu du.

TALDEA

Interpretatzaileak: Fernando Aguado, Eva del Palacio, Virginia Sánchez, Alejandra Lorente, Eduardo Tovar, Jorge Corrales, Vicente Aguado, Trajano del Palacio, Luna Aguado / **Bibolina:** Milena Fuentes / **Klabikordio jotzailea:** Miguel Barón / **Laute, mandola eta perkusio jotzailea:** Javier Monteagudo.

TALDE ARTISTIKOA

Bertsioa, itzulpena eta zuzendaritza: Eva del Palacio / **Espazio eszenikoaren diseinua:** Morboria / **Atrezzo egitea:** Fernando Aguado / **Jatorrizko musika:** Charpentier y varios / **Argia eta soinua:** Guillermo Erice / **Argazkia:** Carlos Bandrés / **Gerentzia:** Javier Puyol / **Diseinu grafikoa:** Miguel Brayda / **Jantzien diseinua:** Ana del Palacio, Fernando Aguado eta Eva del Palacio / **Jostuna:** Mónica Flores / **Karakterizazioa eta maskarak:** Fernando Aguado, Ana del Palacio y Eva del Palacio / **Ekoizpena:** MORBORIA SL.

El enfermo imaginario Morboria Teatro-ren ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.morboria.com

Iraupena: 120' (atsedenaldiarekin)

RETRATO DE LUDMILLA EN NINA SIMONE

Dramaturgia eta zuzendaritza: **David Lescot**

LA COMÉDIE DE CAEN - KAÏROS
FRANTZIA

Ikuskizuna frantsesez, gaztelerazko azpitituluekin



OSTIRALA **ABUZTUAK 2 / LA CAVA / 22:30**

“Nire larrua beltza da” kantatzen du eta jakin badakigu esaldi soil hori zer izan zen beretako. Piano-jotzaile klasikoko karrera etetea. Eskubide zibilengatiko borrokaren aldeko ezin hautsizko konpromisoa. Diskriminazioak eta malenkoniak markatutako bizitza asaldatu eta oldarkorra.

Ikusleei begiratzen dienean, kontzertua hasi baino lehenago, beldurra da nagusi. Figura tragiko bat da. Denek uste dute denen begiradapean daudela. Gero... irri egiten du eta kantari hasten da.

Nina Simone famatuaren eta aktore eta Harlem Quarteteko kantaria den Ludmila Daboren irudiak tartekatzen dira agertokian, bluesa, jazza eta soula partekatuz.

David Lescot zuzendari eta musikariak Daborekin batera jotzen du gitarra eta, horretaz gainera, erretratu musikal bikoitza marrazten du. Historia ez da monologo baten bitartez kontatzen; joan-etorriko joko bat balitz bezala, solasaldia egiten da eta hartan Ninaren kantuek bere bizitzaren gertakariei hala nola bere mendekoei erantzuten diete.



NAZIOARTEKOA

TALDE ARTISTIKOA

Ludmilla Dabo eta David Lescot.

Retrato de Ludmilla en Nina Simone La Comédie de Caen-en ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.comediedecaen.com

Iraupena: 70'

FEDERICO GARCÍA

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Pep Tosar**,
Federico García Lorcaren
lanean eta bizitzan
oinarrituta

LARUNBATA ABUZTUAK 3 / LA CAVA / 22:00

Beti itzuli ohi da Lorcarengana. Behin eta berriz. Hala ere, proposamen iradokitzaille hau harrigarri egiten zaigu.

Ederra baita.

Materialen amalgamagatik eta hizkuntzen nahasketagatik: Lorca ezagutu edo aztertu zuten Juan de Loxaren, Allen Josephsen edo Vicenta Montesinos García-Lorcaren lekukotzekin batera musika, kantua, dantza, errezitazioa eta bideoak.

Mitoaren atzean dagoen Madril-Granada trenaren urrats erritmikoan bukaera tragikora eramanezuen gizakiaren historiara egindako bidaia kronologikoagatik.

Aire flamenko bikainengatik.

Tosarren ahots erakargarriak Lorcaren bizitza eta lanaren gertakari garrantzitsuetan sartzen gaitu, Fuentevaquerosen igarotako haurtzarotik hasi eta 1936an erail zuten arte, eta unibertitate-garaia eta New Yorkera edo Kubara egindako bidaiak tartean direla, bere bizipenak kontatzen dizkigu garai bakoitzean idatzi zituen lanekin lotuz.

“Asmoa da publikoari hurbiltzea bizitzari eta heriotzari intentsitate berarekin kantatu zion poetaren barne-mundua”. Horixe adierazi du zuzendari eta aktore kataluniarrak. Hots, jenio granadarraren “begiratu desberdina” eskaini nahi izan du.

TALDEA

Pep Tosar / **Kantea:** Mariola Membrives / **Gitarra:** Marc López / **Perkusioa:** David Domínguez / **Dantza:** Rafael Ramírez.


TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia: Evelyn Arévalo y Pep Tosar / **Zuzendaritza:** Pep Tosar / **Errealizadorea:** Agustí Torres / **Kamera laguntzailea:** Francesc Martorell / **Esenografia eta jantziak:** Pep Tosar y Evelyn Arévalo / **Argi eta bideo teknikaria:** Sergio Roca Saíz / **Soinu teknikaria:** Joni Belategui / **Argakia:** Justin Brown / **Ekoizpen exekutiboa eta banaketa:** Gabriela Marsal, Leila Barenboim y Mireia Gràcia (Mika Project) / **Koprodukzioa:** Oblideu-vos de nosaltres SLU y Festival Grec de Barcelona / **Laguntzailea:** Diputació de Barcelona, Generalitat de Cultura, Departament de Cultura, Govern de les Illes Balears eta Institut d'Estudis Baleàrics.

FFederico García Mika Proyecten eta Oblideu-vos de nosaltres SLUren ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.mikaproject.es

Iraupena: 90'





LA CARPA

LA NOCHE JUSTO ANTES DE LOS BOSQUES

Bernard-Marie Koltès

Zuzendaritza: **Fernando Renjifo**

ASTEARTEA **UZTAILAK 23** / LA CARPA / 22:00

XX. mendeko azken hamarkadetako antzerki-testu zirraragarrienetako bat da hau, seguruenik.

1977an idatzi zuen Koltèsek lan hau. Koltès gazte hil bazen ere (41 urte besterik ez zituen) maila handiko egile bilakatu zen eta, gero, dramaturgia frantses garaikidearen klasikoetako bat.

Lau hamarkada geroago, harrigarria da zein berria den bere lana eta zer indar duen literaturaren eta politikaren esparruetan, atzerriartasunaren eta bestea izatearen gaitasunaren gaiek gero eta kezka handiagoa sortzen baitute gure gizarteetan.

Genet onenaren oinordekoa, bere burua bestean sartzen du idazkera eder, gordin eta enigmatikoa erabiliz, autozentsurari edo politikoki zuzena denari lotu gabe.

Batetik, etorkin baten monologo argi eta ingurutzalea, batzuetan deseroso eta anbigua ere badena, eta, bestetik, beste norbait, ezezaguna, hirian itzuli-mitzuli dabilena eta zu bati galderak egiten dizkiona (zu hori gutako edozein izan daiteke).

Renjiforen eszenaratzea minimalista da, Koltèsen hitzek eta aktorearen interpretazioak soilik babestua. Ulertzera eman nahi da, halako testu baten aurrean, ezin dela askoz ere gehiago egin, hau da, testuko hitzak fideltasunez transmititu behar direla eta, orobat, haren ñabardurak aurkitu eta testuari berari hitz egiten utzi behar zaiola.

 + 16 URTE

TALDE ARTISTIKOA

Itzulpena eta zuzendaritza: Fernando Renjifo / **Interpretatzailea:** Juan Ceacero / **Soinu-espazioa:** Óscar Villegas / **Argiztapena:** Maxi Gilbert, Isaac Torres, Fernando Renjifo / **Koordinazio teknikoa:** Isaac Torres / **Banaketa:** Lorenzo Papagallo – Xper teatro.

La noche justo antes de los bosques Veranos de la Villa 2018ren ekoizpena da, Madrílgo Conde Duquerekin elkarlanean.

Iraupena: 80'



Enrique Escorza

ÚLTIMO TREN A TREBLINKA

Patxo Telleria

VAIVÉN PRODUCCIONES

Zuzendaritza: **Mireia Gabilondo**

OSTEGUNA **ABUZTUAK 1** / LA CARPA / 22:00

Honako honetan, Vaivén Producciones-ek gonbidatzen gaitu antzerkiaren mugetatik harago doan esperientzia ikaragarri bat bizitzera.

Euskal konpainiak Varsoviako umezurtegi judu batean murgiltzen gaitu, 1942ko abuztuan. Janusz Korczak poloniar mediku, pediatra eta pedagogo baten eskutik, gainera. Umezurtegi honetan haien azken egunaren lekuko izango gara (baina haien literatan egonen garenez, aldi berean haien kide sentituko gara), bertako barne-antolakuntza, egunerokoak, harremanak, janariaren bilaketa nekaezina, beldurrak zein pozak... bertatik bertara ezagutuz. Aldi berean, berrietan txarrena hartuko dugu: umezurtegi bizi diren 200 adingabeekin batera Treblinkako kontzentrazio-eremu nazira doan trenera joan beharko du; hantxe daude gas-ganberak. Hala ere, haren beldurren eta pozen, errutinen edo barne-antolamenduen parte eginen gaitu, ia-ia haurren errepublika zen harena.

Omenaldi bikoitza dugu hemen: batetik, haurren bizitzari duintasuna emateko heriotzaraino borrokatu zen gizon paregabe hari, Korczaki, eta, bestetik, haur guztiek gatazketan pairatzen duten babesgabetasunari.

PARTE-HARTZAILEAK

Alfonso Torregrosa, Maiken Beitia, Ander Iruretagoiena, Gorka Martín, Tania Fornieles, Nerea Elizalde, Jon Casamayor, Alfonso Díez eta Asier Hernández.

TALDE ARTISTIKOA

Ideia originala: Ana Pimenta / **Zuzendaria:** Mireia Gabilondo / **Zuzendariaren laguntzailea:** Kepa Errasti / **Esenografia:** Fernando Bernués / **Esenografiaren errealizazioa:** Iñigo Lacasa / **Atrezzo eta tresneria:** Julia Gysling / **Jantziak:** Ana Turrillas / **Musika eta soinu-espazioa:** Iñaki Salvador / **Argitazpenaren diseinua:** Xabier Lozano.

Último tren a Treblinka Vaivén Producciones-en ekoizpena da.

Argibide gehiago: www.ultimotrenatreblinka.net

Iraupena: 70'



ERREGE JAUREGIA

TRES MUJERES DE LORCA

Dramaturgia eta zuzendaritza:

Ángel Sagüés Irigoyen

ÁTIKUS TEATRO



OSTIRALA **UZTAILAK 19 / 19:30**

IGANDEA **UZTAILAK 21 / 19:30**

IGANDEA **UZTAILAK 28 / 19:30**

ERREGE JAUREGIA. ARKUEN ARETOA

ANTZERKI POETIKA ZIKLOA

Mariana Pineda, Adela eta La Novia. Lorca-ren drametako hiru pertsonaia feminino handi bidelagunak ditugu. Bidearen hasierako gizartean, emakume kartsuei ez zaie barkatzen ezarritakoaren aurka jotzea. Emakume horiekin egungo egunera arte etortzen gara eta elkarriketa bizi bat entzuten dugu kafetegí batean.

Komediaren eta tragediaren kontzeptu klasikoaren bidez egindako jokoa dugu, hausnartzen duena honako gai honen inguruan: emakumeek amodiozko zer desira zituzten orain dela ehun urte eta dituzten oraingo munduan, zalantzez betetako mundu honetan.



ANTZERKI POETIKA ZIKLOA



HEMENGU ANTZERKIA

PARTE-HARTZAILEAK

Ane Sagüés Abad, Itsaso Echeverría Monreal eta Ainara Ariza Delgado.

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta zuzendaritza: Ángel Sagüés Irigoyen / **Zuzendaritzako laguntzailea:** Asun Abad Corral / **Koreografia:** Eukene Sagüés Abad / **Jantziak:** Átikus.

Tres mujeres de Lorca Átikus Teatro taldearen ekoizpena da.

Informazio gehiago: www.atikus.es

Iraupena: 20'

DESCUBRIENDO A HAMLET

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Adriana Salvo**
eta **Daniel Granda**, William
Shakespearearen *Hamlet*:
lanean oinarrituta

BOGA-BOGA



IGANDEA **UZTAILAK 21 / 20:15**

IGANDEA **UZTAILAK 28 / 20:15**

LARUNBATA **ABUZTUAK 3 / 20:00**

ERREGE JAUREGIA. ERREGEAREN ARETOA

ANTZERKI POETIKA ZIKLOA

Agertokiaren gainean, bi aktore, bata emakumea eta bestea gizona. Antzerkia antzerkiaren barruan. Bi lankide *Hamlet* antzezlanari buruzko ikerketa luze bat ari dira egiten, eta ez dira gai pertsonaia batzuei agur esateko, beren misterioarekin harrapatu dituztelako.

Muntaia honetarako, urtebete baino gehiago eman dute lanean obra unibertsalarekin. Egokitzen aske honek euskarazko testu batzuk ditu, obrari buruzko xehetasun ezezagun batzuk erakusten dizkigu eta saiatzen da ikusleei erantsten bi interpretatzaileek tragediaren jokoan murgiltzean sentitzen duten emozio bizia.



ANTZERKI POETIKA ZIKLOA



HEMENGO ANTZERKIA

PARTE-HARTZAILEAK

Adriana Salvo eta Daniel Granda.

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta zuzendaritza: Adriana Salvo y Daniel Granda / **Aholkularitza artistikoa:** Itsaso Arana.

Descubriendo a Hamlet Boga-Boga taldearen ekoizpena da.

Iraupena: 20'

LUCRECIA ARTEMISIA VIRGINIE TRES RELATOS DE UNA VIOLACIÓN

William Shakespeare-ren *The Rape of Lucrece*,
Virginie Despentes-en *King Kong Teoria* eta
Agostino Tassi margolariaren judizioaren lege-testuak,
Artemisia Gentileschi-ren bortxaketari buruzkoak

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Pedro Zabalza**

IRALEI TEATRO



IGANDEA **UZTAILAK 21 / 21:00**

IGANDEA **UZTAILAK 28 / 21:00**

LARUNBATA **ABUZTUAK 3 / 19:30**

ERREGE JAUREGIA. ARKUEN ARETOA

ANTZERKI POETIKA ZIKLOA

“Eta ezetz esaten badidazu, bide hori irekiko zait, nire indarra, saiatuko dena zure ohean zu deuseztatzen”.

Historian zehar beti gertatu izan dira bortxaketak eta orain ere gertatzen dira. Garai eta estilo desberdinetako hiru testuren bidez, Iralei saiatzen da antzerkiaren bidez hurbiltzen bortxaketaren ezaugarri arruntetara: biktimak errudun bihurtzea, justiziak maiz biktima arbulatzea...

Nolanahi ere, emakumeen aldaketa sakon bat ere islatu nahi du; izan ere, emakumeak beren askatasuna eskuratzen ari dira, eta historian barrena batez ere gizonenak izan diren espazioak betetzen.



ANTZERKI POETIKA ZIKLOA



HEMENGO ANTZERKIA

PARTE-HARTZAILEAK

Leire Ruiz, Iratxe García Úziz eta Maiken Beitia.

Lucrecia Artemisia Virginie. Tres relatos de una violación Iralei Teatro taldearen ekoizpena da.

Iraupen: 20'

AMOR OSCURO [SONETOS]

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Jesús Arbués**,
Federico García Lorcaren
Sonetos del amor oscuro obraren gainean

VIRIDIANA CENTRO DE
PRODUCCIÓN TEATRAL



OSTIRALA **UZTAILAK 26 / 19:30 ETA 21:00****ERREGE JAUREGIA. ARKUEN ARETOA**

Javier García Ortegak ez du interpretatzen, bera Federico García Lorca da. Eta horregatik aktore hobereenaren saria jasotzeko hautagaien artean egon da Max Sarien aurreko bi edizioetan. Oinutsik, hauskortasuna eta mina erakusten ditu argi gutxiko agertokiaren gainean. Hemen poeta unibertsal baten poema desagertuak deskubritzen ditugu, 1983an argitaratu zituzten poemak, poetak idatzi zituenetik ia 50 urte igaro ondoren.

Istorio bat, ikuskizun fin eta zoli bat; beldurra, lotsa eta isiltasuna, muturreko maitasun grinatsu baten hamaika sonetoren inguruan. Poetak soneto horiek idatzi zituen Valentziako Victoria Hotelaren idazpurua duten gutun paperetan, hotel horretan baitzegoen Rafael Rodríguez Rapún bere maitale gaztearen zain, larritasunean murgildua eta berantetsia.

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta zuzendaritza: Jesús Arbués / **Interpretea:** Javier García Ortega / **Esenografia eta argiak:** Josema Hernández de la Torre / **Mapping diseinua:** Óscar Lasaoa / **Bideo animazioa:** Manuel Avellanas / **Musikaren interpreteak:** Pitrón Giménez, Nano Giménez Piano eta Laura de la Fuente / **Grabaketa estudioa:** Nacho Moya / **Birako teknikaria:** Josema Hernández de la Torre / **Argazkiak:** Beatriz López / **Diseinua:** Iglöo / **Banaketa:** Pilar Royo / **Ekoizpena:** Mónica Macías / **Administrazioa:** Lumi Jiménez.

Amor oscuro, Viridiana-ren ekoizpen bat da.

Informazio gehiago: www.vidiana.es

Iraupena: 55'

CALÍGULA DEBE MORIR

Dramaturgía eta zuzendaritza:
Mabel del Pozo eta Xoel Fernández

BÁGOA PRODUCCIONES



LARUNBATA UZTAILAK 27 / 20:00**ERREGE JAUREGIA. ERREGEAREN ARETOA**

“Hura, nire arreba, nire amorantea, nire maitea, hil egin da eta jada deus ere ez da izanen lehen bezalakoa”.

Kaligulak min izugarria sentitzen du Drusila bere arreba hil delako. Min horrek gauzen egoeraren kontrako matxinada piztuko haren barruan. Mundua zentzugabea bada, haren gobernuia ere halakoa izanen da. Orduan, ezinezkoa atzeman nahirik ibiliko da obsesionaturik.

Jainko gisa agertuko du bere burua eta saiatuko da, bere botere absolutuari esker, giza ballotzat jotzen diren guztiak perbertitzen. Hori guztia eginen du bere belaunaldiaren begirada sorraren aitzinean. Gure begien aitzinean.

Pertsonaia krudel, biziotsu eta eroa, berez pertsonaia bat baino gehiago metafora bat dena, eta balio diguna geure buruari galdera handiak egiteko: nor garen, non gauden eta norantz goazen. Galdera horiek erantzun bakarra dute: zentzugabekeria.

 + 16 URTE
TALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Mabel del Pozo / **Testua:** Mabel del Pozo eta Xoel Fernández / **Interpretea:** Xoel Fernández / **Esenografia eta jantziak:** Marta González / **Argia eta soinua:** Mabel del Pozo, Marta González eta Diego Conesa / **Estilismoa:** Patricia Castro Reyes / **Koreografia:** Alberto Arcos / **Diseinu grafikoa eta kartela:** Marta González / **Kartelaren argazkia:** Cuco Cuervo / **Prentsa:** Marta González.

Calígula debe morir da Bâgoa Producciones Teatrales taldearen ekoizpena.

Informazio gehiago: www.bagoaproducciones.com

Iraupena: 70'



BESTELAKO GUNEAK

PASO(S) DE LA POLÍTICA ESPAÑOLA

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Miguel Goikoetxandía**

ILUNA PRODUCCIONES



OSTIRALA **UZTAILAK 19 / 20:30**

IGANDEA **UZTAILAK 21 / 20:30**

IGANDEA **UZTAILAK 28 / 20:30**

ANDRE MARIAREN ATARIA

ANTZERKI POETIKA ZIKLOA

Goikoetxandíak Urrezko mendeko entemes zaharren izpiritua berreskuratzen du, egungo politikaren kritika dibertigarri eta garraz hau eraikitzeko. Bere helburua entretenitzea da, baina aldi berean gaurko abusuen berri ematea.

La bandera, La mordaza, La manada, La tumba del dictador eta La concertina dira bost pieza laburrak, guztien arreta erakarriko dutenak.



ANTZERKI POETIKA ZIKLOA



DOAKO EMANKIZUNA



HEMENGO ANTZERKIA

REPARTO

David Larrea, Ana Berrade eta Miguel Goikoetxandía.

EQUIPO ARTÍSTICO

Dramaturgia eta zuzendaritza: Miguel Goikoetxandía / **Argiztapenaren diseinua eta soinua:** Ion Martinkorena / **Esenografia eta jantziak:** Iluna Producciones / **Banaketa (Nafarroan izan ezik):** Montse Lozano / **Nafarroako banaketa:** Iluna Producciones.

Paso(s) de la política española Iluna Producciones-en ekoizpena da.

Informazio gehiago: www.ilunaproducciones.es

Iraupena: 20'

ERRITU

Kukai Dantza & Sharon Fridman

KUKAI DANTZA + ERIBERRIKO ABESBATZA

Koreografia: **Sharon Fridman**

LARUNBATA UZTAILAK 20 / 21:00

JAUREGIAREN TERRAZA

Berriz ere Kukaik euskal dantza tradizionalaren haria hartu du, denbora barrena dirauena, eta korapilatu eta fusionatu egin du Fridman koreografo ospetsuaren lanarekin. Horrela, espiritualitatez eta samurtasunez betetako ikuskizuna sortu du. Horrela biak bizipenezko bidaia garaikide batean abiatzen dira, norberaren eta taldearen igarotze errituen inguruan.

Haiekin batera bizitzaren egoera desberdinak zeharkatzen ditugu, eta naturarekin eta komunitatearekin lotuta daude egoera horiek. Egoera horiek jaiotzatik kaosera doaz, bakardadearen basamortutik igarota, topaketara, maitasunera eta, azkenik, heriotzara iristeko.

Errituak zubi gisakoak dira, haien bidez deskubritzen saiatzeko zer zentzu duten gure existentzia indibidualaren eta esperientzia kolektibo erritualizatuaren arteko loturek; batetik gure existentzia dago, iraganaz, orainaz, etorkizuneko promesez eta aukerez bete, eta bestetik, esperientzia kolektiboa, betiere erreferentziala, baina mugitu eta aldatzen dena.

★ ZUZENDARI GONBIDATUA

TALDEA

Dantzariak: Alain Maya, Eneko Gil, Ibon Huarte, Izar Aizpuru, Nerea Vesga eta Urko Mitxelena / **Kantua:** David Azurza.

TALDE ARTISTIKOA

Idea originala: Jon Maya Sein / **Koreografia:** Sharon Fridman / **Sorkuntza musikala:** Luis Miguel Cobo & David Azurza / **Dramaturgiako laguntzailea:** Antonio Ramírez-Stabivo / **Argiztapenaren diseinua:** David Bernués & Sharon Fridman / **Soinu-espazioaren diseinua:** Ángel Agüero / **Jantzien diseinua:** Ikerne Giménez / **Eszenografiako diseinua:** Oficina 4Play Arquitectura / **Kudeaketako taldea:** Jon Maya Sein, Nagore Martínez & Doltza Oar-Arteta.

Erritu Kukai Dantzaren ekoizpena da.


Informazio gehiago: www.kukai.info

Iraupena: 60'

LORCA NIÑO LOS POEMAS INFANTILES DE FEDERICO GARCÍA LORCA

LA NAVE TEATRO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Miguel Munarritz**, Federico García Lorcaren lanean oinarrituta



LARUNBATA **UZTAILAK 20 / 20:00**

LARUNBATA **UZTAILAK 27 / 20:00**

ERRIBERIKO KULTUR ETXEA

“El lagarto está llorando...”

Aurten, jaialdira etortzen diren hurrek aukera izanen dute bertso famatu horiek deskubritzeko. XX. mendeko egile bikainenetako batek idatzi zituen bere irakurle txikientzat.

Ikuskizun fin eta iradokitzailea da, umeek parte-hartzekoa. La Nave taldeak, horrela, Lorcaren haur poesian murgitzen ditu, jokoaren, musikaren eta txotxongioren bidez.

 HEMENGO ANTZERKIA

 ANTZERKIA FAMILIARTEAN

PARTE-HARTZAILEAK

Marta Juániz eta Miguel Munárriz.

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta zuzendaritza Miguel Munárriz / **Irudien lanketa:** Miguel Juániz / **Argien diseinua:** Gaizka Mendieta / **Jantzien diseinua:** Marta Juániz / **Eszenografiaren diseinua:** Miguel Munárriz / **Gelako teknikaria:** Miguel Munárriz.

Lorca niño La Nave Teatro taldearen ekoizpena da.

Informazio gehiago: www.lanaveteatro.net

Iraupena: 40'

LA TRADICIÓN DEL TEATRO ITINERANTE EN LAS DOS ORILLAS: DEL SIGLO DE ORO A LORCA Y VASCONCELOS



David Rodríguez Solás

MASSACHUSETTSEKO UNIBERTSITATEA

Hitzaldia

OSTIRALA **ABUZTUAK 2 / 19:00**
ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA

Gure historiako zenbait unetan, antzerkia harat-honat ibili da publikoen bila. Federico García Lorcaren eta Eduardo Ugarteren “La Barraca” dugu proiektu ezagunenetako bat, baina ez da bakarra. Bigarren Errepublikan beste batzuk egon ziren, hala nola “El Teatro del Pueblo”, zuzendaria Alejandro Casona zuena eta Misio Pedagogikoei atxikia, edo “El Búho”, Espainiako Gerra Zibilaren lehen urteetan lanean jarraitu zuena Max Aub-en zuzendaritzapean. Horiek guztiak dagokion balioa eman zioten berriro ere Urrezko Mendeko antzerkiari.

Gaur egungo antzerkiaren izaeraren ondorioz, desagertu egin da antzezpen ibiltarien tradizio hori, baina, dena dela, bizirik dirau Latinoamerikako herrialde askotan.

David Rodríguez Solás literatura eta antzerki espainiarreko ikasketetako irakaslea da Massachusetts Amherst Unibertsitatean. Gainera, *Teatros nacionales republicanos: la Segunda República y el teatro clásico español* idatzi du. Obra hori finalera iritsi da Leandro Fernández de Moratín sarian, zeina Asociación de Directores de Escena elkarteak antolatzen baitu.

MEROLICO- ENTREMESES BULULUADOS



Dramaturgia eta zuzendaritza: **Fernando Villa**, Miguel de Cervantesen entremes batzuetatik abiatuta.

EFE TRES TEATRO
MÉXICO

OSTIRALA **ABUZTUAK 2 / 20:30**

ANDRE MARIAREN ATARIA

Konpainia mexikarrak berreskuratu egiten du ñaquearen eta bululúaren estiloa (komediante ibiltari bat, berak bakarrik pertsonaia guztiak interpretatzen zituen), guregana ekartzeko antzerki klasiko espainiarraren esentzia, muntaketa garaikide arin eta zentzudunen bidez.

Horrela, merolikoa agertzen da gure aitzinean, Erdi Aroko igarle edo bizarginen tankerako saltzailea, hitzontzia. Figura hori oso berezia da Mexikon, munduko beste tokietako ez bezalakoa. Bakardadera eta erbestera dago kondenatua merolikoa eta, baztertua, gizakiaren izaerari begiratzen dio eta horretaz egiten du gogoeta, bere aldartea aintzat hartu gabe. Egunero, ikusle talde berri bati eginen dio aurre; ikusle horiek antzezpenik hoberena espero dute.



NAZIOARTEKOA



DOAKO EMANKIZUNA

TALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Fernando Villa / **Interpretea:** Francisco Silva / **Esenografia eta jantziak:** Pedro Pazarán T. / **Musika:** Mauricio Jiménez / **Argiztapena:** Víctor Manuel Colunga / **Produktzio exekutiboa:** Allan Flores eta Ana Lilia Herrerana.

Merolico EFE Tres Teatro-ren ekoizpena da.

Informazio gehiago: www.efetresteatro.com

Iraupena: 70'



GELAJAUZIAK

Zuzendaritza: **Jon Maya**

KUKAI DANTZA

LARUNBATA **ABUZTUAK 3 / 00:00**
KARLOS III.AREN PLAZA

Kukai eta Cesc Gelabert koreografoa plazan, kalean elkartzen dira. Gelaberten ustez, dantza “munduko gauza guztiak bezala, sasikoa da”.

Begirada berri bat tradizioari, dantza guztien amari, hartaz elikatzen baitira dantzari eta koreografoak, konszienteak direlarik hitz guztiak, dantzako pauso guztiak sortzen direla interpretatzen, asmatzen, sortzen ari den dantzari batengandik. Ekintza hori garaikidea da beti eta bere garaiarekin batera dabil.

★ ZUZENDARI GONBIDATUA

🌐 DOAKO EMANKIZUNA

DANTZARIAK

Alain Maya, Eneko Gil, Ibon Huarte, Jon Maya, Nerea Vesga eta Urko Mitxelena.



TALDE ARTISTIKOA

Proiektuaren zuzendaritza: Jon Maya / **Koreografia:** Cesc Gelabert / **Sorkuntza musikala:** Sabin Bikandi eta Xabier Erkizia / **Jantzien diseinua:** Iraia Ojartzabal / **Esenografia:** Néstor Basterretxea / **Ekoizpena:** Nagore Martinez / **Kontratazioa:** Doltza Oar-Arteta.

Gelajauziak Kukai Dantza-ren ekoizpena da.

Informazio gehiago: www.kukai.info

Iraupena: 55'



**ARTE DRAMATIKOKO
GOI MAILAKO
ESKOLEN TOPAKETA**

GRACIAS A LA VIDA

NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLA

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Rubén Hernández**



ASTEARTEA **UZTAILAK 23 / 20:00**

TAFALLA KULTURGUNEA

Noizbait hilko gara, baina gaur ez. Eta hori ospatu beharra dago. Nafarroako Antzerki Eskolak erantzuna eman nahi die betiko galdera garrantzitsuei: zertarako gaude bizirik? Zergatik jaio gara hemen eta ez beste leku batean? Zerk edo nork jarri gaitu hemen? Ba ote da hilondorik? Non gaude jaio aurretik? Dena dela, hori egiteko, umorea, kolorea eta poza aukeratu ditu; izan ere, gauza batez seguru daude horren sortzaileak: dibertitzeko gaude hemen.

 HEMENGO ANTZERKIA

 ANTZERKI ESKOLAK

INTERPRETEAK

Jon Aldaya, Ilunber Aiestaran, Andrea Laquidain, Estefanía de Paz eta Julio César T.L.

TALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta zuzendaritza: Rubén Hernández / **Jantziak:** María Sagiés Irigoyen / **Argiak:** Luz y Fer / **Escenografia:** Atornapión / **Diseinu grafiko eta argazkiak:** Laguru / **Zuzendari-laguntzailea:** Xabier Artieda / **Ekoizpena:** ENT-NAE.

Gracias a la vida da ENT-NAEren ekoizpena.

Informazio gehiago: www.laescueladeteatro.com

Iraupena: 75'

LAS BODAS DE OLMEDO

ESCUELA SUPERIOR ARTE DRAMÁTICO
DE CASTILLA Y LEON-ESADCYL

Javier Hernando, oinarri gisa hartuta Lope de Vegaren

El caballero de Olmedo eta Federico García

Lorcaren *Bodas de sangre*

Zuzendaritza: **Pepa Pedroche**



ASTEAZKENA **UZTAILAK 24 / 20:00**

TAFALLA KULTURGUNEA

Lorcaren *Bodas de sangre* eta Lope de Vegaren *El caballero de Olmedo* antzezlanek bat egiten dute tragedian, lortu ez diren desioen eta arima zauritzen duten bekaizten inguruan. Hemen, bi klasiko horien gaineko bestelako begirada bat dugu. Indar esoteriko eta telurikoen laino arin batean bilduta sortu da. Indar horiek tartean daude: pertsonaiak eraldatzen dituzte, eta egoera ikaragarrietara eramaten.

Bi autore horiek Espainiako antzerkiaren nortasunaren oinarrian daude. Muntaketa hau jarraitzen zaie Gaztela eta Leongo Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolaren lan ildoetara, Urrezko Mendeko antzerkiari eta dramaturgia berriei. Interpretazioko ikasleen ikasketa bukaerako lana da hori eta sare bat ehuntzen du, non obrek beren artean hitz egiten duten eta azkenean gaurko orainarekin lotzen diren.

 ANTZERKI ESKOLAK

PARTE-HARTZAILEAK

Cristina Rodríguez, Analía González Gámez, Sara Ruiz, Pedro Endolz, David Gómez, Alicia Vermell, Silvia Pelayo, Daniel de la Hoz, Javier Cascón eta Laura Cocho.

TALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Pepa Pedroche / **Dramaturgia:** Javier Hernando / **Zuzendariaren laguntzailea:** Beatriz Aldazábal / **Koreografia:** Marta Gómez / **Musika:** Rodrigo Muñoz / **Berto-aholkularitza:** Elia Muñoz.

Las bodas de Olmedo da Gaztela eta Leongo Arte Dramatikoko Goi Mailako Eskolaren ekoizpena.

Informazio gehiago: www.fuescyl.com/esadcy1


Iraupena: 90'

MUCHO RUIDO Y POCAS NUECES

William Shakespeare

ESCOLA SUPERIOR DE TEATRO E
CINEMA DE LISBOA

Zuzendaritza: **Tonán Quito**



OSTEGUNA **UZTAILAK 25 / 20:00**

TAFALLA KULTURGUNEA

Mesina hiri italiarrean, laster hondatuko dira ordena eta bakea: aztoramendua dakarte Claudio, Benedicto, Don Pedro, haren anaia Juan, Hero eta Beatrizek eta haien amodio iskanbilatsuek. Obran barrena, pertsonaiak elkartu eta urrundu egiten dira, elkar gorrotatzen eta maitatzen dute, maitasunaz, engainuez, adiskidetasunaz eta zorigaitzez eratutako joko dibertigarri batean.

William Shakespearen komedia erromantiko handi honek kaosaren ondorengo maitasuna ospatzen du Lisboako eskolaren muntaia honetan, Tonán Quito zuzendari eta aktore ezagunaren zuzendaritzapean.

 NAZIOARTEKOA

 ANTZERKI ESKOLAK

PARTE-HARTZAILEAK

António Palma, Beatriz Teodósio, Carolina Gomes, Catarina Couto Sousa, Cristiana Lima, Fil Coli, Francisc Romeu, Francisco Pereira de Almeida, Gonçalo Rios, Hugo Teles, Inês Loureiro, José Diogo Dias, Margarida Gameiro, Miguel Ferreira Vidal, Nadezhda Bocharova eta Sara Alexandra.

TALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Tonán Quito / **Itzulpenak:** Maria João Pires eta Fernando Vilas-Boas / **Eszenografia:** Inês Correia, Madalena Garcia, Inês Créssoa eta Tereza Janoová / **Ekoipezna:** Catarina Conceição, Joana Amado Vieira eta Luísa Magrinho.

Mucho ruido y pocas nueces da Escola Superior de Teatro e Cinema de Lisboa eskolaren ekoizpen bat.

Argibide gehiago: www.estc.ipl.pt

Iraupena: 120'



BESTE JARDUERA BATZUK ETA TAILERRAK

SORTZAILEEKIN SOLASEAN

IGANDEA **UZTAILAK 28** / 12:00 / **ERRIBERIKO PARADOREA**

Erriberriko Antzerki Jaialdiak proposatzen du **Alfredo Sanzol antzerkigilearekin** solasaldia egitea. Bertan **El Paíseko Rosana Torres kazetariak** hartuko du parte, zeina informazio kulturalerako aditua baita. Giro lasai batean, sortzaile honen lanean interesa duten ikusleek bertatik bertara jakin ahalko dute nola sortu eta garatu den haren ikuskizuna, jaialdian aurkezten duena; baita ere, zein izanen diren bere hurrengo proiektuak eta nola helduko dion Zentro Dramatiko Nazionalaren zuzendaritzari.

Sarrera libre, leku guztiak bete arte.





TAILERRA

COMPANHIA
DO CHAPITÔ

 INTERNACIONAL

Susana Nunes, Tiago Viegas eta Jorge Cruzek **emango dute**.

UZTAILAK 27, 28 ETA 29 / 17:00etatik 20:00etara / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

COMPANHIA DO CHAPITÔ taldeak tailerra eginen du Erriberriko Kultur Etxean (Kale Nagusia, 37), uztailaren 27an, 28an eta 29an.

Susana Nunes, Tiago Viegas eta Jorge Cruz talde portugaldarreko interpreteek erakutsiko dute nola egiten dituzten antzerki muntaketak sormen kolektibotik abiatuta. Penintsulako konpainia onenetako baten lanera hurbiltzeko aukera aparta egonen da tailerlean jolas, elkarrekintza eta erabateko konplizitatearen bidez, parte-hartzaileekin eta parte-hartzaileen artean, umorea baztertu gabe, hura beti baitago talde horren sormen-lanetan.

COMPANHIA DO CHAPITÔ 1996an sortu zen eta orduz gozotik erreferentea da komedia erabiltzen errealitatearen alderdi guztiak zalantzak jartzeko; horretarako, interpretearen lan fisikoan oinarritzen diren diziplina anitzeko ikuskizunak egiten ditu. Prozesu kolektiboa da, etengabe garatzen ari dena, eta beti publikoaren irudimena eskatzen duena, hizkuntza trabak apurtuz.

Sortu zenetik 31 sormen original egin ditu; hasieran Portugalen antzeztu ziren eta ondoren mundu guztian: Brasil, Cabo Verde, Txina, Kolonbia, Eslovakia, Espainia, Finlandia, Frantzia, Iran, Italia, Norvegia, Frantzia, Suedia, Argentina. . .

TAILERRA

Arte eszenikoaren lengoia desberdinetan interesa duten helduei irekita dago.

Hiru orduko hiru saiok osatuko dute formakuntza, 17:00etatik 20:00etara, abuztuaren 27an, 28an eta 29an. Eta 15 pertsonako edukiera maximoa izango ditu.

IZEN-EMATEA

Plaza libreak osatu arte egin ahal izango da.

Hartarako, posta elektronikoa bat bidali beharko da **difusion@navarra.es** helbidera, **izena, bi abizen, helbidea, NAN** (adinaren frogagiria), **telefono mugikorra**, kontaktuko **posta elektronikoa** eta **matrikula ordainketaren** egiaztagiria.

Tailerraren izen-ematea, matrikularen ordainketa egin duten pertsonen arteko ordena kronologiko zorrotzagatik, burutuko da.

30€-ko zenbatekoagatik ordainketa, banku diru sarreraren bidez egin beharko da, KULTURAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA titularra den kontuan ES38 2100 3693 2122 0054 7110, kontzeptuan **CHAPITÔ TAILERRA MATRIKULAREN ORDAINKETA**, izen-eman duen pertsonaren **izena** eta **abizenak** adieraziz.

Prezioak soilik trebakuntza saioak barne hartzen ditu. Erriberrirako garraioa ikasleen ardura izango da.

Pertsonaren batek izen-ematea ordain zezala eta plaza libreak osa zitezela kasuan matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.

EGOITZA - LABORATEGIA


ABUZTUAK 3 / 20:30 / AURKEZPENA

 HEMENGO ANTZERKIA

Oraingo honetan Amico Teatro konpainia nafarrak honako hauek izanen ditu inguruan *Amico's Planet* egiteko: Jon Maya, dantzaria eta koreografoa; Dora Salazar, eskultorea eta artista plastikoa; Raket Arbelloa, perkusionista; eta David Bernués, argitazpen-diseinatzailea.

Proposamen hau, Mercedes Castañok zuzendua, hautatua izan da laneko egonaldia egiteko jaialdiaren deialdiaren barnean, planteatu baita ikerketako laborategi gisa proiektu artistikoa garatzeko.

Aurreko hiru urteetan bezala, aurten Erriberrik, ekimen honen bidez, Foru Komunitateko sektore profesionala babestuko du. Erriberriko Jaialdiak erakusketaren esparrua gaintu nahi du, sormena ere bultzatzeko, eta, horrela, begirada berriak sustatzeko jardun eszenikoaren gainean.



OLITE APLIKAZIOA

Jaialdiaren agenda, albisteak eta turismo informazioa OLITE aplikazioan.
Dohainik behera kargatu Itunesen eta Appstoren.



 @FestivalTeatroOlite

 @teatrolite

 @festival_teatro_olite

www.oliteteatrofestival.com

#ANTZERKIAERRIBERRI2019